

>justizia



PLAZA BEREZITUAK EPE BARRUAN

Urteetan EAEn hizkuntza-arrazoiengatik bereizitako lanpostuak dituzten hautaketa-prozesuak ere izan beharko genituzkeela azpimarratu eta gero, EH BILDU, EAJ eta Talde Mistoak Jaurlaritzarekin negoziatu ondoren, akordio batera iritsi dira hori posible izan dadin.

LABek EH-BILDUren bidez parte hartu du negoziazio horietan, eta gure asmoa anbizio handiagoa bazen ere, hala nola Euskal Herritik prozesu guztiak kudeatu ahal izateko Kidego Nazional izaera desagertzea negoziatzea, azkenean hauxe da adostu duten TRANSAZIONAL ZUZENKETARAKO AKORDIOA.

Akordio horren bidez, hizkuntzagatiko plaza berezituaren deialdiak egin ahal izango dira, baldin eta plaza berezi horien bitarteko tasa ehuneko 8ra murrizten bada. Horretarako, hurrengo hautaketa-prozesuetan plaza huts berezituaren kupo bat gordeko da, eta horietan hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko baldintza gisa ezarriko da.

Ez dakigu hurrengo hautaketa-prozesuan

zehaztutako lanpostuetarako deialdia egingo duten, zuzenketa Antolamendu Efizientziaren Legean argitaratu behar baita, eta datorren astean Kongresura, Senatura eta berriro Kongresura itzuliko da.

Garaiz gabilitza, baina ez gara ausartzen esatera hurrengo hautaketa prosezuan profila duten plazak aterako diren ala hurrengo prosezuan.

Honekin batera doakizue zuzenketa sinatua

